

M.U.-k, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak garapen iraunkorraren euskal ingurumen-estrategia bultzatzen dute

2006/10/30

2006ko urriak 30ean M.U.-Gipuzkoako Foru Aldundia-Ihobe-ren arteko hitzarmen sinadura ospatu da Mondragon Unibertsitateko Errektoretzan. **Esther Larrañagak** —Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua eta IHOBeko lehendakaria denak—, **Luis Maria Oyarbidek** —Garapen Iraunkorreko diputatuak— eta **Inaxio Oliverik** —Mondragon Unibertsitateko Errektoreak— Euskal Ingurumen Estrategian deskribatutako helburuak lortzeko elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu dute.



Honako hauek izango dira erakundeen arteko *lankidetzaz-ildoak*:

- Enpresetan ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzeko prestakuntza eta laguntza.
- Prestakuntza, berrikuntza eta ikerketa Ekoingenieritza arloan.
- Ikerketa-proiektuen diseinua eta garapena ingurumen-hezkuntzaren esparruan.
- Prestakuntza-ekintzak ingurumenaren esparruan.
- Ikerketa- eta berrikuntza-proiektuen garapena ingurumen-kudeaketan.
- Ikerketa-proiektuak ingurumen-ekonomiaren esparruan.

Ekodiseinua

Hitzarmenaren helburua da **ekodiseinuaren arloan lankidetzarako** esparru egonkorra finkatzea.

Goi Eskola Politeknikoan iaz sortu zen Ekodiseinuko Ikerketa Gela bultzatuko da enpresetan eta oro har, gizartean, produktuen diseinuan ingurumen-irizpideak sartzeko asmoz. Alegia, Ekodiseinua sustatzea eta dinamizatzea da helburua.

Akordioaren bigarren ardatz nagusiaren helburuak diseinuaren arloko enpresa eta profesionalei zuzendutako sentsibilizazio eta prestakuntzako jardunaldi espezifikoak garatzea eta industria-produktuen diseinuarekin zerikusia duten ekintzetan laguntzea dira.

Aurrekontu osoa 181.200 eurokoa da.